

HUME ETA MODERNITATEA

(zirriborroa)

Agustin Arrieta Urtizberea

EHU-ko irakaslea

e-mail: agustin.arrieta@ehu.es

web gunea: www.ehu.es/aarrieta

UEU-n aurkeztua

2010eko uztailaren 19an

BIBLIOGRAFIA LAGUNGARRIA

Sinesmen eta usteei dagokienez, ik.

Arrieta-Urtizberea, Agustin (2010), *Sinesmenak eta usteak*. Alberdania

(ik. www.ehu.es/aarrieta “Bestelakoak” atala.)

Moralari buruz, ik.

Arrieta-Urtizberea, Agustin (2006), *David Hume. Ekintzak, sentimenduak, balioak*. Jakin irakurgaiak

(ik. www.ehu.es/aarrieta “Argitalpenak” atala.)

AURKEZPENA

Humeren ekarpen filosofikoa deskribatzen denean bi ideia nagusi erabiltzen dira: haren eszeptizismoa eta haren naturalismoa. Biak, zenbaitetan banan-banan zenbaitetan batera, erabiltzen dira Humeren filosofiaren ustezko zenbait ezaugarri justifikatzeko: antza denez, ez-razionalista, ez-fundamentista eta ez-arauemailea da Humeren filosofia.

Bi adibide hartuko ditut aintzat.

1. Humeren filosofian modu *naturalista* batean azaltzen da nola iltzatzen diren guregan dauzkagun *usteak* eta *sinesmenak*. Azalpen hori naturalista da kausa naturaletara jotzen duelako. Hala, uler dezakegu nola iristen garen dauzkagun usteak eta sinesmenak edukitzera. Gure usteen sarea azaldu dezakegu zentzu kausal batean, *kausak ezagutzea* “azaltzea” den neurrian. Baina azaltzea ez da justifikatzea. Hortaz, azalpen naturalista horretan sinesmen horiek razionalak edo justifikatuak ote diren ez da garrantzitsua. Dauzkagun usteak eta sinesmenak kausa natural batzuen kariatara iltzatzen dira, eta kito.

Gainera, uste eta sinesmenek eraginen bat badute gure ekintzetan eta gure jokabideetan. Baina eragin hori ere naturalki azal daiteke; eragin hori, neurri batean, ez-razionala da, arautze razionalik gabekoa. Gure usteak, gure sinesmenak, gure jokabideak, denak dira kausazko kate baten kide, denak dira natura itsuaren zati. Ikuspegi horren barruan, ezin da finkatu uste bat beste uste bat baino justifikatuagoa dela: denak dira uste naturalak, prozesu natural baten fruituak. Humeren helburu nagusia da prozesu hori deskribatzea.

2. Judizio moralak direla-eta, antzeko zerbait esan dezakegu. Hasiera batean behintzat, interpreta daiteke (eta sarri askotan horrela interpretatu ohi da; areago, interpretazio hori indartsuena izan da) Humek enpirikoki edo naturalki deskribatzen digula judizio moralen psikologia. Ez dago batere garbi (edo, gutxienez, ez da nabarmena) teoria moral arauemailea eskaintzen digun edo ez. Eta horrelakorik eskainiko ez balu, hau da, bere morala nagusiki deskribatzailea balitz, orduan moralaren fundamentazioaren auzia Humeren proiektutik kanpo geratuko litzateke. Gainera, judizio moralen sorreraren deskripzioan arrazoimenak zeregin txikia dauka. Judizio moralen iturria arrazoimena baino grina edo sentimendua da. Hortaz, Humeren morala ez da arau-emailea, ezta razionalista ere. Moralari dagokionez, fundamentazioaren auzia ez da errelebantea Humeren filosofian.

Humeren filosofiaren alderdi eszeptikoak Humeren filosofiari arestian lotu dizkiogun ezaugarriak indartzen ditu. Izan ere, eszeptizismoaren ikuspuntutik, ez dago inolako usteren edo sinesmenen inongo justifikaziorik (uste moralak barne). Beste era batera esanda, uste eta sinesmen guztiak (edo guxtienez dauzkagun garrantzitsuenetakoak) zalantzarik dira, motz geratzen dira justifikazio razionalaren ikuspegitik. Esaterako, Humek deskribatzen du nola eskuratzen ditugun Niaren existentziaren gaineko eta kanpo errealitatearen gaineko usteak, eta abar; baina horrek ez du esan nahi Nia edo kanpo-errealitatea existitzen denik: existitzen direla uste dugu, baina ez gaude justifikatuta hori uste izateko, faltsuak baitira. Horixe da sarri askotan dagoen interpretazioa. Beraz, eszeptizismoak areagotzen du Humeren filosofiaren izaera anti-fundamentista.

Ondorioz, bai naturalismoaren ikuspuntutik bai eszeptizismoaren ikuspuntutik sinesmen eta uste guztiak *maila berean* leudeke: edo denak, neurri batean edo bestean, susmagarriak dira edo denak makurtzen dira Hume deskribatzen dituen prozesu itsuetara. Bi interpretazio horiek egin dira humear kausalitatearen inguruan: edo kausalitatea ohituran oinarritzen da (hau litzateke azalpen naturalista bat) edo kausalitatea, azken buruan, guk munduan egiten dugun proiektzio bat da, baina munduan ez dago horrelakorik (edo biak konbinatzen dira). Bide batetik zein bestetik ez dago arrazoimenaren izenean egin ohi diren bereizketak egiterik; ez dago sinesmen eta usteen joko arautzerik, ez dago esaterik uste batzuk, beste uste batzuen aldean, justifikatuta (edo justifikatuagoak) daudela. Badirudi, beraz, fundamentazioaren bidean egoera zaila dela Humeren filosofiaren baitan.

Humeren filosofian, bada, *arrazoimena*, *justifikazio* kontzeptua, *arau razionalak* eta abarrekoak gutxiesten dira, eta haien truke deskripzioak, ohiturak, joerak, grinak eta sentimenduak agertzen dira.

Hau dena zuzena balitz, Hume sartu beharko genuke arrazoimenaren izen ona zikindu duten filosofoen zerrendan; alegia, Hume modernitatearen ikur nagusien aurka agertuko litzaiguke.

Nire helburu nagusia izango da ahultzea arestian azaldu dudan Humeren filosofiaren irudi hori. Zehatzago esanda, uste dut Humeren gaineko goiko deskripzioa sinplifikazio bat dela. Zenbaitetan sinplifikazioak baliagarriak eta interesgarriak izaten dira konplexuagoa den zerbait bere gordinean

adierazteko edo modu didaktikoan agertzeko, beti ere konplexuagoa den hori funtsean aldatu gabe, faltsutu gabe. Besteetan, ordea, sinplifikazioak arriskutsuak dira, desitxuratze nabarmena dakartelako. Kasu honetan sinplifikazio desitxuratzailerik baten aurrean gaudela iruditzen zait.

Bi zatitan banatuko dut nire aurkezpena:

- Goizekoan, uste-sinesmenen esparruan kokatuko dut nire gogoeta. Saiatuko naiz erakusten Humeren helburua ez dela huts-hutsik deskribatzailea. Aitzitik, Humek badu helburu arau-emaile bat. Alegia, usteen jokoa araututa dago, eta uste batzuk, beste batzuen aldean, justifikatuagoak dira eta razionalagoak dira. Eta hori guztia, gainera, bateragarria da Humeren naturalismoarekin eta eszeptizismoarekin

- Bestetik, arratsaldean, helburu antzekoa izango dut, baina oraingoan moralaren esparruan. Humeren morala ez da judizio moralaren psikologia hutsa, hau da, Humeren morala ez da huts-hutsik deskribatzailea: arau-emailea ere bada. Ildo horretatik, edozein proiektu razionalistaren ezaugarri batzuk baditu Humeren moralak, nahiz eta, argituko dudan zentzuan, Humeren morala ez-razionalista izan.

(1) Arrazoimenari buruz

Arrazoimena, antza denez, modernitatearen ikurra da. Nola ulertu behar dugu *arrazoimena* Humeren filosofiaren barruan? Nahiz eta arrazoimena fakultate gisa ulertzen den zenbaitetan, Humeren filosofian arrazoimena prozesu edo jarduera mota gisa ulertu behar da. Fakultate gisa ulertzeak arrisku bat dakar Humeren filosofian. Izan ere, fakultateak substantzia edo gauzatzat hartu daitezke, eta Humeren filosofian substantziak susmopean daude. Kontuak kontu, gogo- edo buru-jarduera mota desberdinak bereizten ditu Humek: besteak beste, arrazoimena (zenbaitetan *adimena* ere esaten du), oroimena eta irudimena. Arrazoimenari dagokionez zera esan dezakegu: arrazoitzean, hau da, *arrazoimena* deritzogun jarduera horretan, ideiak alderatzen edo erlazionatzen dira. Humeren arabera, arrazoimenak ez du ideiarik ekoizten, alderatzen edo erlazionatzen baizik. Arrazoimena ez da sortzailea: dagoeneko dauzkagun ideiak alderatzen edo erlazionatzen ditu. Irudimenaren aldean, arrazoimena ez da jarduera edo prozesu sortzailea. Esaterako, arrazoimenak *triangeluaren* ideia erlazioa dezake *figura itxiaren* ideiarekin, edo *uretan sartzen den eskuaren* ideia erlazioa dezake *esku bustiaren* ideiarekin.

Zenbaitetan ideien arteko erlazioa nabaria da. Kasu horietan Humek *INTUIZIO*az hitz egiten du, hau da, arrazoimenaren modalitate bat da intuizioa. Besteetan, erlazio hori ez da hain nabaria, baina zenbait pausu nabari edo ia nabari emanek, erlazioa finka daiteke. Esaterako, 121 eta 11x11 zenbakien ideiak zeharka erlazioa daitezke. Kasu horretan *FROGA*z mintzatzen zaigu Hume. Filosofo batzuek ulertu dute aipatu bi horiek (intuizioa eta frogia) direla

arrazoimenaren modalitate bakarrak, hau da, interpretatu izan dute *arrazoimenaz* bi prozesu edo jarduera mota horiek baino ez dugula ulertu behar. Interpretazio horrek badu bere justifikazioa Humeren testuetan, baina bestalde ez da ahaztu behar Humek *KAUSAZKO ARRAZOIKETA*z ere hitz egiten duela, eta arrazoiketa mota hori ez da ez intuiziozkoa ezta frogazkoa ere. Gorago aipatu dugun esku bustiaren kasua kausazko arrazoiketaren adibidetzat jo beharko genuke.

Egia esateko, Humeren filosofian arrazoimena ulertzeko bi modu bereiz daitezke, bata zabalagoa bestea baino; bata bestea hartzen du bere barne. Areago, esan daiteke Humek modu nahasian erabiltzen duela “arrazoimen” hitza. Zenbaitetan, modu estu batean erabiltzen du, eta kasu horretan, eta testuinguruaren arabera, kutsu negatibo batez ulertzen du; izan ere, arrazoimen tradizional (eta estu) horrek ezin ditu sortu/ekoiztu gure ohiko edo funtsezko usteak, eguneroko bizitzarako guztiz garrantzitsuak diren usteak. Horregatik, hartaz negatiboki hitz egiten du Humek, ahalmen gutxikoa balitz bezala.

Beste zenbaitetan, ordea, zentzu zabalago batean hitz egiten du arrazoimenaz, hain zuzen ere, gure ohiko, eguneroko eta funtsezko usteak sortzen dituen ahalmenaz.

Egungo terminologia erabiliz, esan genezake Humerentzat arrazoimena zentzu hertsian ulertzen dugunean, analitikotasunaren eta apriorikotasunaren esparruan dihardugula; zentzu zabalenean ulertzen dugunean, ordea, aposterioriko eta enpirikoa den ezagutzarako jauzia ematen dugu..

Hemendik aurrera, *arrazoimen* adierazpena zentzurik zabalenean ulertuko dugu; estuena adierazteko, ordea, *arrazoimen analitiko*a erabiliko dut.

(2) USTEEN ETA SINESMENEN AZALPEN NATURALISTA

Humerentzat usteak *ideia biziak* dira, hain dira biziak non eragina duten gure jokabide eta ekintzetan: nolako usteak halako jokabideak! (Humeren filosofian “ideia” zer den ikusteko, ik. Arrieta-Urtizberea (2006), *David Hume. Ekintzak, sentimenduak, balioak*. Jakin Irakurgaiak; eta Arrieta & Uribarri (2008), *Filosofiaren Historia*. Elkar)

Grafikoki esanda, gure gogo-egoeretako batzuk distiratsuak dira, biziagoak dira. Horiek sinesmenak edo usteak dira, gure bizitzan funtzio edo betekizun bereziak dituzten gogo-egoerak. Hau da, usteak guregan nola iltzatzen diren aztertzeko ikusi behar da ideia batek zeren arabera edo nola eskuratzen duen (ideia hori bera uste bihurtzen duen) distira edo bizitasuna. Bizitasun horrek ematen die usteei funtzio edo betekizun garrantzitsu bat gure bizitzan. Honela laburbilduko nuke Humek egiten duen planteamendua. Batetik, gogo-egoeren artean usteak bizitasun berezi bati esker bereizten dira bestelako gogo-egoeretatik. Eta beste ikuspuntu batetik usteek, behin iltzatzen direnean, eginkizun edo funtzio bat dute. Lehenengoari buruz, Humek ez digu pista handirik ematen argitasun edo bizitasun horretaz. Baina zerrendatzen eta deskribatzen dizkigu zenbait bide horrelako bizitasuna duten gogo-egoerak

(hau da, usteak) eskura ditzagun. Eta, lan honetarako garrantzitsua den kontua: bide horiek ez daude maila berean. Bide natural horiek guztiek eramaten gaituzte usteak jasotzera, hau da, distira berezi hori duten gogo-egoerak edukitzera.

Beraz, pasa gaitezen ikustera usteak eta sinesmenak guregan nola iltzatzen diren, Humeren azalpen naturalisten arabera.

Hiru bide bereiziko ditugu (egia esateko, bide gehiago bereiz genitzake, baina hauekin nahikoa da).

a) ARRAZOIMEN ANALITIKOA

Arrazoimen analitikoaren bitartez finkatzen ditugun baieztapenak (ideiak, Humeren hitzetan) uste bihurtzeko aukera guztiak dituzte. Oroimenak eta hautemateak uste asko “ematen” dizkigute. Humeren arabera, arrazoimen analitikoaren bitartez frogatzen (edo intuitzen) diren ideiek izugarritzko bizitasuna dute. Humek parean jartzen ditu oroimenaren bitartez, hautematearen bitartez eta arrazoimen analitikoaren bitartez eskuratzen ditugun usteak (T 153). Kasu horietan bizitasuna nabaria da, Humeren arabera. Bizitasun altuena daukagu kasu horietan.

Halere, Humek irudikatzen ditu eskenatoki eszeptikoak non arrazoimen analitikoak engaina gaitzakeen (oroimenak eta zentzumenek engaina gaitzaketen bezalaxe). Esaterako, $12 \times 12 = 144$ baieztapena uste bihurtzen da

arrazoimen analitikoaren fruitua delako. Halere, arrazoimen analitikoaren lana kasu horretan luzea da, eta irudika ditzakegu langintza horretan gerta daitezkeen hainbat arazo. Arazoak arazo, zenbait uste eta sinesmen arrazoimen analitikoaren fruituak dira, hain zuzen ere, *egia analitikotzat* hartzen ditugun usteak eta sinesmenak (matematika, kasu).

b) ASOZIAZIOAK

Humek deskribatzen duenez, badaude bestelako prozesuak edo asoziazioak usteak guregan finkatzen edo ainguratzen dituztenak. Humeren ikuspuntuan prozesu horiek arrazoimen analitikotik kanpo geratzen dira, baina funtsezkoak dira hainbat eta hainbat uste guregan finkatzeko eta iltzatzeko tenorean.

Badaude gogo- edo buru-prozesu mekaniko batzuk inpresio batetik asoziazioz (naturalki) hari lotzen zaion ideia batera eramaten gaituztenak, halako eran non ideia horrek jatorrizko inpresioaren bizitasuna eskuratzen duen, uste bihurtuz. Asoziazio mota horiek dira gure gogoaren legeak. Naturak bere legeak dituen bezalaxe, gure gogoak ere bere legeak ditu. Aipatu asoziazio mota horiek deskribatuz, gure gogamenaren deskripzioa egiten dugu.

Humek honako asoziazioak bereizten ditu:

- Antzekotasuna. Nire gogamenean hautemate (ideia izan edo inpresioa izan. Bereizketa horietaz, ik. goiko erreferentzia bibliografikoak) bat dagoenean, eskuarki *antzekoa den* beste hautemate batera igarotzen naiz.

Esaterako, pertsona bat ikusten ari naizenean, erraz asko igarotzen naiz pertsona horren antzekoa den beste pertsona batengan pentsatzera.

- Espaziozko eta denborazko hurbiltasuna. Hautemate bat nire gogamenean dagoenean, eskuarki harekin espazioan edo denboran lotura estua duen hautemate batera igarotzen naiz. Nire bizilaguna ikusten ari naiz une honetan (hau da, bizilagunaren inpresioa daukat), eta harekin betidanik bizitzen den pertsona etorri zait burura (hau da, pertsona horren ideia etorri zait burura).

- Kausa/efektu erlazioa. Hautemate bat nire gogamenean dagoenean, harekin kausazko erlazioa duen beste hautemate batera igarotzen naiz. Esaterako, etxe baten teilatuan kea ikusten ari naiz (hau da, kearen inpresioa daukat), eta etxe barruan egongo den sutean pentsatzen hasten naiz (hau da, sutearen ideia etorri zait gogora).

Humek, erlazio horien bitartez, gure buruan gertatzen diren trantsizio guztiak azaldu nahi ditu. Grabitazioaren printzipioak gorputzen mugimenduak azaltzen dituen eran, gorago aipatu ditugun hiru erlazio mota horiek gure buruan gertatzen diren mugimenduak azaltzen dituzte. Erlazio horiek azaltzen dute ideia batetik bestera nola igarotzen garen. Halaber, erlazio horiek inpresio batetik ideia batera nola igarotzen garen ere azaltzen dute. Esaterako, bizilagunaren inpresiotik (bizilaguna ikusten ari bainaiz) haren bikotekidearen ideiarda pasatzen naiz. Hala, nire gogoan gertatzen den mugimendu hori espazio-denborazko hurbiltasunaren printzipioari esker azal dezaket.

Dena den, asoziazio horien artean Humek izugarritzko garrantzia ematen dio azkenekoari. Lehenengo biek, Humeren aburuz, ez dute behar besteko bizitasuna duten ideiarik ekoizten edo sortzen. Hau da, ez dute beti sinesmenik ekoizten. Halere, bai antzekotasuna bai espaziozko edo denborazko hurbiltasuna garrantzitsuak dira, bestelako gogo-prozesuetan eragina dutelako, hala nola kausazko erlazioetan.

Pasa gaitezen, bada, kausazko erlazioa.

Kausazko erlazio batean guk hiru osagai bereizten ditugu: kausa, efektua eta kausaren eta efektuaren arteko kausazko lotura. Eskua uretan sartu dudalako eskua busti egin dut. Hiru osagai dauzkagu: eskua uretan sartzea (kausa), eskua bustitzea (efektua) eta kausaren eta efektuaren arteko *ezinbesteko lotura* (*dudalako* horren bitartez adierazten duguna). Eman dezagun, egun-egunero, ni trenean sartu aurretik Mikel izeneko pertsona ateratzen dela trenetik. Kasu horretan ere bi gertakari dauzkagu: Mikel ateratzea eta ni sartzea. Alabaina, inork ez luke esango Mikel ateratzeak ni sartzea kausatu duenik. Ez genuke esango: ni sartu naiz, Mikel atera delako. Bi gertakari horien arteko erlazioa kointzidentzia da, besterik ez. Zergatik? Erantzuna hauxe da: bi gertakari horien artean ez dago kausazko loturarik edo ezinbesteko loturarik. Hala, kausazko erlazioetan hirugarren osagaiak premiazkoa dirudi. Kausazko lotura egoteak bereizten ditu elkarrengandik kausalitatea eta kasualitatea (edo kointzidentzia).

Hortaz, kausazko erlazioari buruz aritzen garenean, hiru ideia dabilta gure buruan. Batetik, kausa den gertakariaren ideia; bestetik, efektua den gertakariaren ideia; eta, azkenik, aurreko bien arteko kausazko loturaren ideia.

Hiru ideia horiek nondik datoz? Humeren sisteman badago halako printzipio bat: ideia guztiak inpresioetatik datoz. Garbi dago nondik datozen kausaren eta efektuaren ideiak; izan ere, bi ideia horiek bi inpresiotatik datoz. Eskua uretan sartzearen ideia eskua uretan sartzearen inpresiotik dator. Beste hainbeste esan dezakegu efektuaren ideiarri buruz. Kausa eta efektua, garbi esatearren, ikusten ditugu. Alabaina, kausazko lotura ez da ikusten. Orduan, nondik dator kausazko loturaren ideia? Non dago ustezko kausazko loturaren ideiarri dagokion inpresioa? Humeren erantzunak bi fase ditu.

Batetik, Humek kausazko loturaren ideia gogoeta-inpresio batetik (ez, ordea, jatorrizko inpresio batetik) eratortzen dela dio. Kausazko loturaren inpresioa ohituraren edo azturaren poderioz sumatzen dugu guk. Zer esan nahi du horrek? Eman dezagun urarekin inongo esperientziarik ez duen ume batek eskua uretan sartzen duela lehenengo aldiz. Humeren tesia da ume horrek ez dakiela zer gertatuko zaion eskuari. Kausazko loturaren inpresioa izan dezagun esperientzia premiazkoa da. Izan ere, mota bereko kausei mota bereko efektuek jarraitzen dietela behin eta berriro ikusi behar dugu. Eskua uretan hainbat aldiz sartu eta erre ondoren, bi gertakari horien arteko kausazko erlazioaz mintzatuko gara. Errepikapen horiek sortzen dute guregan kausazko loturaren gogoeta-inpresioa. Kausaren eta efektuaren *jatorrizko inpresioak* elkarrekin behin eta berriro sumatu ondoren, guregan kausazko loturaren *gogoeta-inpresioa* sortzen da. Giza gogamenak horrela funtzionatzen du, eta errepikapenek (edo ohiturek) gogoeta-inpresio bat sortzen dute.

Bestetik, kausazko lotura munduan edo errealitatean dagoela uste dugu. Zergatik uste dugu kausazko lotura errealitatean dagoela, kausazko loturaren inpresioa gogoeta-inpresioa baldin bada? Humek gogora ekartzen

digu giza gogamenak arautzen duen beste printzipio bat: gizakiak gogoeta-
inpresioak errealitatera *proiektatzeko* joera dauka.

Ildo horretatik, eta kausazko lotura dela eta, Hume errealista ez dela
esan ohi da, *kausazko lotura gure buruan baino ez baitago*.

Egoera latzean utzi gaitu Humek: kausazko lotura ez da errealia.
Gogamenaren mekanikak, ohituraren poderioz, kausazko loturaren gogoeta-
inpresioa sortu du, eta inpresio hori gero errealitatera proiektatzen dugu.

Igaro gaitezen indukzioaren arazora. Kausazko erlazioaren izaera
horrelakoa baldin bada, zein da etorkizunari buruzko *usteen* oinarria? Zein da
indukzioaren justifikazioa? Eskua uretan sartzear nagoela, eskua bustiko dela
uste dut.

Eskuaren eta uraren ideien azterketa soilak ez gaitu eramaten eskua
bustiko dela pentsatzera. Hainbat aldiz eskua uretan sartu eta gero, jakin
badakigu hurrengo aldian ere bustiko dela. Esperientzia funtsezkoa gertatu da.
Esperientzia horrek aukera ematen digu etorkizunean zer gertatuko den
aurreateko, etorkizunari buruzko ustea edukitzeko.

Badirudi etorkizunari buruzko baieztapenak iraganeko baieztapenetatik
inferitzen ditugula. Iraganetik (hauteman eta hautematen dugunetik)
etorkizunerako (artean hauteman ez dugun horretarako) urratsa ematen dugun
bakoitzean Hume kausa/efektu erlazioaz mintzatzen zaigu. Alabaina, Humek
toki txarrean utzi du aipatu kausazko erlazioa. Indukzioa ere hain toki txarrean
utzi al du?

Kausazko erlazioa dela eta, etorkizunean ere eskua bustiko dela
inferitzen dugu. Baina, zergatik egiten dugu inferentzia hori? Zerk justifikatzen

gaitu inferentzia hori egitera? 'Kausazko lotura!' da erantzuna. Baina kausazko loturak nola justifikatzen du indukzioa? Saia gaitezen justifikazio hori azaltzen:

Eskua uretan sartzen ari naiz (hori inpresio bat da, eta uste baten indarra dauka). Inpresio horretatik bustiko naizela uste izatera pasatzen naiz. Zergatik? Lotura kausal bat dagoelako. Baina lotura kausal hori iraganari dagokio. Beste premisa bat behar da etorkizunerako jauzia emateko. Hauxe da behar den premisa: etorkizuna iraganaren antzekoa da. Zerk justifikatzen du uste berri hori?

Garbi dago uste hori ez dela ideien arteko erlazioetan oinarritzen: izan ere, etorkizunaren ideian arakaturik ezin dugu ondorioztatu etorkizunak iraganaren antzekoa izan behar duenik. Etorkizuna iraganetik desberdina dela esatea ez da kontraesana: litekeena da iragana eta etorkizuna arras desberdinak izatea. Hau da, arrazoimen analitikoak ezin du justifikatu uste hori. Beraz, gertakarizko auzi batean izan beharko du oinarri uste horrek. Baina uste horrek gertakarizko auzi bat baldin badauka oinarri gisa, hau da, kausa/efektu erlazio bat baldin badauka oinarri gisa, kausa/efektu erlazio horren gaineko ustea justifikatu beharko dugu. Hala, hasierako egoeran gaude berriro, eta ez dugu aurrerapausorik eman: gertakarizko auzi batetik (eskua uretan sartzean, eskua bustiko da) beste gertakarizko auzi batera igaro gara. Hortaz, justifikazioen katean ez dugu aurrera egin.

Beraz, badirudi eskua bustiko delako ustea ez dugula justifikatu, eta arrazoibideak usteak justifikatu egin behar direla agintzen du. Hori da Ilustrazioaren mezu handienetako bat, sineskeriatik urrun gaitzakeena. Akaso, ondorioztatu behar al dugu eskua bustiko delako ustea irrazionala dela? Humek ez du horrelakorik esaten. Beraren erantzuna hauxe da: etorkizunari

buruzko usteak, kausazko loturaren inpresioa bezalaxe, ohituran edo azturan oinarritzen dira.

Hala, eskua bustiko delako uste hori eta, oro har, etorkizunaren gaineko usteak ez dira arrazoimen analitikoaren ondorioak edo fruituak. Baina uste horiek gure gogamenaren *mekanikaren* ondorioak dira. Gorputzek lege fisikoei men egiten dieten gisan, gogamenak ere baditu bere legeak, eta lege horiei men egiten die itsu-itsuan. Lege horietako bat da arestian ikusi duguna: ohiturak edo azturak gure gogoan kausazko loturaren inpresioa eta, horrekin lotuta, etorkizunaren gaineko usteak sortzen ditu. Horregatik, behin baino gehiagotan Hume indukzioaren gainean eszeptiko bat dela esaten da, ez baitu justifikatzen indukzioa. Garbi dago Humerentzat horrelako auziek arrazoimen analitikotik kanpo geratzen direla, baina, halere, Humek prozesu horri *arrazoimen kausala* deitzen dio. Geroago azalduko dugu zergatik Humek erabiltzen duen *arrazoimen* terminoa ohitura edo aztura bere baitan hartzen duen prozesua izendatzeko.

Batetik, Humeren obra nagusietan gogoeta luzeenak kausalitateari buruzkoak dira. Beraz, gaia Humerentzat oso garrantzitsua da, kausalitatean oinarritzen baitira gure uste gehienak. Gogoeta horiek ez-klasikoak dira eta, interpretazio estandarraren arabera, badirudi Humek gutxiesten duela kausalitatea. Nola elkartu edo bateratu bi ideia horiek? Nola elkartu gutxiespena eta garrantzia? Aurrerago azalduko dugu nola.

c) HEZKUNTZA ETA LEKUKOTASUNA

Humek uste du badagoela beste bide bat garrantzitsua dena bizitasun handiko ideiak sortzeko, hau da, usteak edo sinesmenak sortzeko. Hezkuntza edo lekukotasuna garrantzitsu da gure bizitzan. Humek onartzen du gure usteen erdia baino gehiago hezkuntzaren bidetik eskuratzen ditugula; eta lekukotasuna hezkuntza prozesuan baliabide nagusia da. Humeren hitz hauek ondo laburbiltzen dute beraren ikuspegia:

Gizakien lekukotasunetik edo bertako lekukoen eta ikusleen txostenetatik eratortzen dena baino arrazonamendu ohikoagorik, erabilgarriagorik, baita beharrezkoagorik ere, ez dago giza bizitzan.

Lekukotasunaren prozesuaren azpian badaude zenbait printzipio, Th. Reidek egoki aztertu zituenak. Baina hezkuntzaren azpian dagoen oinarrizko ideia hauxe da: ideia baten errepikapenaren poderioz, ideia horrek eskura dezake uste bihurtzeko behar besteko indarra edo bizitasuna.

Badago alde aipagarri bat hezkuntzaren eta goiko atalean aipatutako asoziazioen artean: asoziazioetan inpresio batek transmititzen dio berak duen bizitasuna eta indarra ideia bati, harik eta ideia hori uste edo sinesmen bihurtzen den arte. Lekukotasunaren kasuan, errepikapenak ematen dio bizitasuna ideia bati; ez dago ideia horri zuzenean edo zeharka lotzen zaion inpresiorik. Humek aztertzen du errepikapen horrek zer nolako ezaugarriak dituen horrelako ahalmena (hau da, usteak eta sinesmenak ekoizteko ahalmena) eskuratzeko.

(Humek, lekukotasunaren bidetik, erakusten du zer nolako garrantzia izan dezaketen erretorikak, lokuzioak, fikzioak, eta abarrekoek)

d) Ondorioak

Aipatutako horiek dira Humek identifikatzen dituen prozesuak, hain zuzen ere, usteak edo sinesmenak ekoizteko ahalmena duten prozesuak. Zeintzuk dira *prozesu razionalak*? Garbi dago *arrazoimen analitiko* izenpean deskribatu ditugun prozesuak razionalak direla. Halaber, Humek behin eta berriro, eta *gauzak behar bezala egiten* direnean, razionaltzat hartzen ditu kausazko asoziazioan oinarritutako prozesuak: *kausazko arrazoitzea* edo *arrazoitze kausala* aipatzen du sarri askotan. Zenbaitetan esan izan da kausazko asoziazioaren prozesua automatikoa dela, eta, hala bada, zailtasunez esan dezakegu razional dela. Baina Humeren *Tratatua* irakurriz gero, egoera oso bestelakoa dela jabe gaitezke. Hori dela-eta, hona hemen gogoetatxo bat:

Humek elkarrengandik bereizten ditu arrazoitze kausalaren aplikazio egokiak eta ez-egokiak. Lehenengoei *probabilitate filosofikoa* deitzen die; bigarrenei, ordea, *probabilitate ez-filosofikoa*. Bereizketa horri lotzen zaio Humek egiten duen beste bereizketa hau: *erregela orokorren bi eragin* mota bereizten ditu (T 1.3.13.7-12).

Kausazko arrazoitzearen aplikazio *ez-egokiak* (edo *ez-filosofikoak* edo *erregela orokorren lehenengo eraginak*) honelako uste edo sinesmen edukitzera eraman gaitzake: nire erlojuaren orratzen kokapenak kanpainen mugimendua kausatzen du; izan ere, erlojuaren orratzek hamarrak direla

adierazten dutenean, kanpaiak mugitzen hasten dira. Horrelako aplikazio ez-egokiak saiheste aldera, Humek gogora ekartzen du *erregela orokorren bigarren eragina*. Bigarren eraginak zuzenketak egiten ditu kausazko arrazoitzearen gainean. Bigarren eraginaren mendean, esaterako, elkarrengandik bereizten ditugu kausa/efektu erlazioetan gerta daitezkeen akzidenteak edo garrantzirik gabeko zirkunstantziak. Bigarren eragin horretara heltzen gara arrazoitze kausalaren gaineko eskarmentuaren kariatara.

Zer dira erregela orokor horiek?

Erregela orokorraren kontzeptua (bigarren eraginaren zentzuan) Humeren obraren barruko zenbait tokitan aipatzen da. Judizio estetikoaren gaineko gogoetarik sistematikoena *Gustuaren Araua* (GA) izeneko obran aurkitzen dugu (Testu horren euskarazko bertsioa Arrieta-Urtizberea (2006)-n). Lan horretan erregela orokorrak gustuaren arauari lotzen zaizkio. Batzuetan *artearen erregela orokorrak* aipatzen ditu (GA 10), besteetan *konposizioaren erregela orokorrak* ekartzen ditu gogora (GA 9), baita *kritikaren erregelak* (GA 9) eta *edertasunaren erregelak* ere (GA 16). Edozein modutan ere, Hume erregela orokorrez mintzatzeko zaigu, eta erregela horien eskutik gustu eta sentimendu estetikoak garatzen dira. Hala, erregela horiei esker, bat-bateko ebaluaketa estetikoak zuzendu ditzakegu. (ZUZENKETAREN IDEIA BEHIN ETA BERRIRO AGERTZEN ZAIGU, eta hori oso gai garrantzitsua da, zuzentzeak nolabaiteko arautzea behar duelako)

Tratatuan (T 1.3.15) aurkitzen dugu *erregela orokor* kontzeptuaren garapenik zehatzena. Une horretantxe Hume arrazoitze kausalaz ari da. Zeintzuk dira arrazoitzen kausalaren erregelak? Horixe da bere buruari egiten dion galdera.

Testuinguru horretan, Humek zortzi erregela zehazten ditu (kausak efektuen aurretikoak dira; kausa eta efektua elkarren ondokoak dira,...). Erregela horietan kausen eta efektuen arteko erlazioaren gaineko esperientzia metatzen da. Erregela horiek ez daude *a priori* inon idatzita. Erregela horiek praktika baten islak dira. Areago, Humeren arabera, “Horrelako erregelak erraz asmatzen dira, baina aplikatzeko garaian zailtasuna ikaragarri handia da.” (T 1.3.15.11). Izan ere, kasuz kasuko zirkunstantzien sarea benetan konplexua izan daiteke.

Costelloe-k horrelako erregelen zenbait adibide eskaintzen ditu.¹ Pentsa dezagun janaria-ondo-nola-egin edo ondo-nola-idatzi zehazten duten erregeletan. Erregela horiek praktika baten ondorioak dira, eta gauzak nola egin behar diren adierazten dute. Erregelen multzoa praktika bati lotzen zaion ideal baten adierazpidea da. Estetikan kritikariaren ikuspuntua izango genuke; etikan ikusle tinko eta egonkorrarena.

Arrazoimen kausalaren barruan erregela horien existentziak (bigarren eraginaren zentzuan) erlatibismoan erortzea saihesten du, hau da, hasiera batean ia-ia edozein baieztapen uste edo sinesmen bihur badaiteke ere, azkenean badago bereiztea uste edo sinesmen zuzenen eta ez-zuzenen artean.

Laburbilduz, badauzkagu, nagusiki, hiru bide usteak eta sinesmenak finkatzeko. Arrazoimen analitikoa oso mugatua da, eta gure uste eta sinesmen gehienak edo arrazoitze kausalaren bitartez edo hezkuntzaren bidetik eskuratzen ditugu. Hortaz, badirudi usteen eta sinesmenen mundua arautu

¹ Costelloe (2007), 8-9.

gabe geratzen zaigula, barra libre dagoela; izan ere, Humek berak onartzen du arrazoitze kausalak edozein sinesmen edukitzera eraman gaitzakeela. Arazo hori areagotzen da hezkuntzaren kasuan. Halere Hume, arrazoitze kausalaren kasuan, saiatzen da erakusten askatasuna ez dela erabateko, eta praktikaren poderioz nola sortzen den arautegi antzeko bat erakusten digu. Beraz, azkenean mekanismo horrek (ohitura oinarritzat duen mekanismoak) okertzat har daitezkeen usteak identifikatzeko baliabideak ematen dizkigu. Mekanismo auto-erregulatua da, bada. Azkenean, arrazoitze kausalak ez ditu onartzen arrazoitze kausalak berak ekoiztutako uste edo sinesmen guztiak: arautegi bat dauka bere baitan. Baina hezkuntzari buruz, zer esan?

(3) USTEAK EKOIZTEN EDO SORTZEN DITUZTEN PROZESUEN ARTEKO GATAZKA

Humek usteak sortzen dituzten zenbait prozesu jartzen ditu mahai gainean. Horietako batzuk, nolabait esanda, modu automatikoan sortzen edo ekoizten dituzte usteak, uste horien edukia baztertuz neurri handi batean. Horregatik -interpretatzen da- haren kezken artean ez dago aztertzea usteek nola sortu beharko luketen, nola sortzen diren baizik. Usteak nola sortzen diren deskribatu nahi du; ez, ordea, usteen mundua nola arautu behar den. Humeren filosofia interpretatzeko modu hau zalantzan jarri edo, gutxienez, ahuldu nahi dugu.

Alde batera utziko dugu arrazoimen analitikoaren prozesua. Funtsean, Humeren arabera, prozesu horren bitartez *a prioriko* uste edo sinesmenetara iristen gara. Hori alde batera utzita, *a posterioriko* usteak edo arrazoitze

kausalaren bitartez edo hezkuntzaren bitartez edo bestelako asoziazioez eskuratzen ditugu. Eta hala eskuratutako usteen artean daude eguneroko bizitzan hain garrantzitsuak eta hain ohikoak diren usteak. Jakina, gorago aipatu dugun interpretazioaren arabera, prozesu horiek guztiak ia-ia automatikoki sortzen dituzte usteak, eta esan daiteke prozesu itsu erdi-automatikoen bidetik sortzen direla gure usteak, hain zuzen ere, arautze ezaren mendean gaude. Ez dago ezer araututa; usteak eduki badauzkagu, besterik gabe.

Hala eta guztiz ere, ikusi dugu prozesuak ez direla hain automatikoak. Esaterako, Humek arautzen du arrazoitze kausalaren prozesua. Gogora ditzagun erregela orokorrak!

Orain, gainera, pauso bat emango dugu aurrerantz. Izan ere, (a posterioriko usteak ekoizten dituzten) prozesu horien artean ere gatazka sortu daiteke behin baino gehiagotan. Adibidez, arrazoitze kausalak (arrazoitze kausal zuzenak) eraman gaitzake U uste batera, eta hezkuntzak ez-U uste izatera. Horra hor gatazka bat. Beraz, kontraesan batera eramaten gaituzten bi prozesuren aurrean gaude. Kontraesan horren aurrean zenbait irtenbide proposa daitezke:

- Kontraesana asumitu, eta berarekin bizi.
- U eta ez-U alde batera utzi, hau da, U-rekiko agnostiko izan

Ba Humek oso garbi erakusten du bere jarrera. Bere jarrera hauxe da: nahiz eta agian ez-U sinets dezakegun, U sinetsi *BEHARKO* genuke. Nahiz eta Humek batzuetan sailkatzen dituen usteak indarraren edo bizitasunaren arabera (indar handiagoko usteek indar gutxiagokoak zapaltzen dituzte (T 153-

154)), hainbatetan bereizten ditu uste biziak edo indartsuak uste bidezkoetatik; areago, uste indartsuek ez dituzte zapaltzen bidezko usteak, hau da, azkenean bidezko usteak dira iltzatzen direnak (T 116-117). Humek esaten digu errepikapena (idea edo, nahi bada, baieztapen baten errepikapena) oso eraginkorra dela usteak sortzeko. Errepikapenaren poderioz iltzatzen zaizkigu hezkuntzaren bidetik jasotzen ditugun usteak. Hala iltzatzen zaizkigun usteak sarri askotan biziagoak eta indartsuagoak dira arrazoitze kausalaren bitartez eskuratzen ditugunak baino. Halere, Humek dioenez (T 117), hezkuntzaren maximak arrazoimenaren aurkakoak dira, areago, hezkuntzaren bidez jasotako usteak beste garai edo leku batean hezkuntzaren bidez jasotako usteen aurkakoa izan daitezke. Horrek erakusten du neurri batean izaera arbitrarioa dutela uste horiek. Humek dio filosofoek ez dutela sekula kontuan izaten hezkuntzaren bidetik jasotako ustea, nahiz eta funtsean ohitura eta errepikapena dagoen azpian (arrazoitze kausalaren kasuan bezalaxe). Zer esan nahi du Humek?

Hona hemen interpretazio bat. *Filosofoaren* figura ekarri du gogora, eta ez da ahaztu behar, erregela orokorreari buruz mintzatzen denean, probabilitate filosofikoa aipatzen duela. “Filosofo” hitzaren bi erabilera horiek estu daude loturik. Ulertu behar da esperientziatik beretik sortzen diren baliabideak eduki badauzkagula bidezko usteak finkatzeko, hezkuntzak eman ditzakeen usteen bizitasunaren gaineratik. Humek bizitasun kontzeptua behin eta berriro aipatzen duen arren, irakurketa xeheagoa eginez, bidezkotasunari ematen dion garrantzia ageri da azkenean. Eta *bidezkotasun* kontzeptua arauemailea da.

Fikzioaz ari denean ere Humek antzeko planteamendu egiten du (T 123). Egia da fikzioak sarri askotan izugarritzko bizitasuna duten usteak ekoitz

ditzakeela: irudimen indartsu bat oso egokia da usteak sortzeko. Humekek dioenez, usterik biziak sortzen dira horrela, arrazoitze kausalak sortzen dituen usteak baino biziagoak izan daitezke. Hala eta guztiz ere, erregela orokorrek ahalbidetzen dute elkarrengandik bereiztea arrazoitze kausalak sortzen dituen usteak eta fikzioak sortzen dituenak (ik. *Tratatuan*, III. Liburuari egindako eranskina; 196-198 orriak, gaztelaniazko itzulpenean), eta gogoeta horrek erakusten digu lehenengoak bidezkoak direla bigarrenen aldean.

(Ildo beretik interpretatu behar da MIRARIEI BURUZKO kapitulu ospetsua)

Laburbilduz, gizakiak, usteak eskuratzeko tenorean, men egiten dio gizatiarrak diren zenbait prozesu edo mekanismori. Prozesu horiek (arrazoimen analitikoaren kasuan izan ezik)itsuak dira, nolabait esatearren. Ildo horretatik, esan ohi da Humeren ikuspegia naturalista dela, gertatzen dena, besterik gabe, deskribatzen baitu. Baina gauza gehiago ere gertatzen dira, Humekek deskribatzen baitu nola eskura ditzakegun bidezkoasuna arautzen duten mekanismo batzuk: erregela orokorrei buruz ari gara. Eta erregela orokor horiek, bidezkoasunaren izenean, uste batzuk ahultzeko gaitasuna dute. Erregela horiek esperientziaren fruituak dira. Hortaz, badirudi Humeren naturalismoak maila desberdineko prozesuak deskribatzen dituela. Batetik, lehen mailako usteak eskuratzeko zenbait prozesu deskribatzen ditu. Bestetik, bigarren mailako prozesuak, lehenengo maila horretan eskuratutako usteen gainean eragina izan dezaketenak. Bigarren maila horretan bidezkoak eta ez.bidezkoak diren usteen arteko bereizketa egiten da.

Eta hau guztia nola bateratu Humeren eszeptizismoarekin?

4. Humeren eszeptizismoa ikuspegi natural eta arau-emaile baten baitan

Humeren eszeptizismoa honela deskriba daiteke: beti aurki daitezke arrazoiak edozein prozesutatik eratorria den edozein uste zalantzan jartzeko. Eta kontua da bigarren mailako usteak (uste baten bidezkoasuna finka dezaketen usteak) ere zalantzapean daudela, lehenengo mailako usteak bezalaxe; izan ere, prozesu beren ondorioak dira, eta argudio eszeptikoek eraso egiten diete prozesu horiei.

Nola atera egoera horretatik? Eszeptizismoak itzaliko al du gure uste guztien (lehenengo eta bigarren mailako usteen) bizitasun eta indarra? Eszeptizismoak itzal al ditzake gure usteak?

Eszeptizismo klasikoan, bai: axolagabetasunaren bidetik, lasaitasunera (*ataraxia*) igarotzen dira eszeptiko klasikoak. Lasai bizitzea da proposatzen duten alternatiba. “Lasai bizitzeak” esan nahi du usteen gaineko kezkarik gabe bizitzea, hau da, ez aldarrikatzea inongo judizio edo iritzirik.

Humeren erantzuna: eszeptizismoa hor dago, jakina, baina gizakia den bezalakoa da, eta usteak sortuko dira etenik gabe, usteak sortzen dituzten gizatiar prozesuak beti martxan ari direlako. Egia da eszeptizismoaren eragina aldi baterakoa izan daitekeela, baina geroago denak jarraitzen du bere bidea, eta berriro ere sortuko dira ohiko usteak, sortuko dira usteen arteko ohiko gatatzak, sortuko dira bigarren mailako usteak, sortuko da bidezkoasunaren

kontzeptua,... Zalantza eszeptikoak ez du eguneroko esperientzia itzaltzeko behar besteko indarra.

Nolabait laburbiltzearen, Humek deskribatzen du gure usteen sare mardula nola sortzen den, eta deskripzio horretan badago lekua bai zalantza eszeptikoarentzat, baita izaera arau-emailea duten prozesuentzat ere. Eta horrela bizi gara, mugikor, aldakor, gatazkatsua den eta ahulgune nabarmenak dituen sare horren arabera.